

Espedientearen kodea: 2024ZZ020007
Espedientearen gaia: 2024an arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak eta deialdia.
Dekretu zbk.: 2024/1845

IRAGARKIA

Alkateak, 2024/12/04ko dataz, honako Ebazpena eman du:

“2024ko uztailaren 1eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren Oñartzungo udalerrian 2024an arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzak. Dirulaguntza horiek emateko, kontuan izango da Oñartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza eta 2022-2024rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 21.800,00 euroko izendapena eginda dago, Oñartzungo Udalaren 2024 urteko aurrekontuko 1 0321.481.335.00.04 2024 zenbakidun partidaren kontura.

Jasotako eskaerak oinarrietan adierazitako irizpideen arabera baloratu dira eta eskaera egin duen entitate bakoitzari dagokion dirulaguntza zehaztu da.

Hizkuntz Normalizaziorako teknikariak egin duen txostena ikusita eta Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

ERABAKI DUT

Oñartzungo elkarteetan, merkataritza/ostalaritza establezimenduetan eta enpresetan euskararen erabilera sustatzeko, guztira 11.711,53 euroko gastua onartzea eta beheko koadroaren arabeko dirulaguntzak ematea eskaera egin duten entitateei.

ENPRESAREN IZENA	Kanpoko errotulazioa	Normalizazio ekintza orokorrak	Ticketbai	Puntueus	ESKATZAILEA RI guztira
HERKUDEN ILEAPAINDEGIA	300,00	0,00	0,00	0,00	300,00
Idoya Tovar Duque JANGOXO janari prestatua	196,63	980,10	147,47	0,00	1324,20
Felipe Eizagirre Gesalaga OREA okindegia	73,32	271,71	0,00	0,00	345,03
OIARTZUN AUTOESKOLA SL	0,00	2000,00	0,00	0,00	2000,00
IRAITZ HARATEGIA SL	90,75	332,75	0,00	0,00	423,50
BODEGA ALDAKO SL	0,00	762,40	0,00	0,00	762,40
TALLERES ELKAR SL	600,00	0,00	0,00	0,00	600,00
HARAN GEOLOGIA Koop. Elk.	0,00	437,72	0,00	200,00	637,72
MAUSA 3D SL	0,00	476,94	0,00	0,00	476,94
ZUMABE INGENIARITZA F. SL	0,00	346,48	0,00	0,00	346,48
HISPANIA REAL MOTOR SL	0,00	495,28	0,00	0,00	495,28
C.C. CARREFOUR SA	0,00	2000,00	0,00	0,00	2000,00

ABB NIESSEN	0,00	2000,00	0,00	0,00	2000,00
GUZTIRA ATALKA	1.260,70	10.103,36	147,47	200,00	11.711,53

Ordainketa udal aurrekontuko 1 0321.481.335.00.04 2024 (A 1559/ 2024) diru atalera bideratuko da.”

Eta horren berri ematen dugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzitarako Donostiako Epaitegian BI HILABETEKO epean, iragarki hau udaleko taulan argitaratu eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera. Eta Administrazio Publikoen Prozedura Arrunta arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA aurkez dakioko ebazpena eman zuen organoari HILABETEKO epean, iragarki hau udaleko taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin bat etorritz, eta interesatuaren eskubideak babesteko egoki irizten diren egintza edo errekurtsok aurkezteari kalterik egin gabe.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Alkatea.

Elektronikoki sinatua



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2024ZZ020007-Iragarkia/Iragarkia (OIARTZUNGO UDALA)